

8. Arabako Iruña

Euskararen ondarearen suntsiketa programatua hasi da



Julio Nuñez, Eliseo Gil kanporatzeko zeregin nagusienetakoa izan zuen arkeologoa, Lurmen kendu ondoren eta berak indusketen zuzendaritza hartu eta gero, eremuaren %3an egindako suntsiketaren irudia, 2010eko uztailan, uda garaian.

Gai honetan, euskararen historiarako hain garrantzitsua den Arabako Iruñari buruz arituko gara, historia labur bat eginez eta azken urtean gertatutako suntsiketaren hasiera kontatuz.

Euskararen Jatorriaren Biltzarra Elkartean dagoen Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak bide honetan egindako lana labur-labur azalduko dugu.

Ondoren Martin Elexpuruk suntsiketaren bideo bat erakutsiko du eta azken urte honetako gertaera nagusiak aipatuko ditu.

1. Gai honen historia laburra

Iruñan (Veleia) orain urte gutxi agertutako euskarazko idazkunek, Euskal Herrian azken 40 urteetan izan dugu eztabaida zientifiko korapilatsuena sortu dute, euskarari dagokionean. Zenbatuko bagenitu prentsan eta interneten agertutako iritzi, artikulua eta txosten kopurua, zalantzarik gabe, horixe baieztatuko luke, diziplina askotako adituk, eta oro har, herritarrek erakutsitako interes eta informatua izateko gogo itzelagatik.

Iruña Veleia, dagoeneko, ez da eztabaida zientifiko hutsa, euskal komunitateak argitzea eskatzen duen gaia baizik, ez euskararen iragana edo etorkizuna horren menpe daudelako, baizik eta Euskal Filologiaren eta Arkeologiaren sinesgarritasuna une honetan kolokan dagoelako.

Orain 3 urte idazkunen egiazotasunari buruzko lehenengo zalantzak agertu zirenean, gai honetan interesa dugunok batzorde zientifiko bat eta eztabaida zabal bat eskatzen hasi ginen, gaia behar bezala argitzeko. Arabako Foru Aldundiak, indusketaren jabea, batzorde bat izendatu zuen baina bertan ia kide guztiak (12tik 8), hemengo EHU unibertsitateko sail bereko irakasleak ziren. Ez zen unibertsitate askotako ordezkariarik jaso nahi izan.

Prozesua irregulartasunez beteta egon da. EHUtik kanpoko adituek parte gutxi izan zuten, adibidez, Perring arkeologoa ez zen gonbidatua izan indusketak in situ ezagutzera eta txosten partzial bakarra bidali zioten postaz bere iritzia eman zezan. Batzordeko kide batek ere ez zuen indusketa bisitatu eta bakarrik txostenetan irakurritakoetatik atera zituzten ondorioak. Kontuan hartu beharra dago Batzordea indusketatik 8 km.tara dagoen Gasteiz hirian batzartzen zela.




Batzordekideek ez zituzten Iruña Veleian urte horietan egondako arkeologoak elkarrizketatu, lana nola egin zuten behar bezala aztertzeko. Bestetik, kanporatua izan den Eliseo Gilek eskatu zituen analitikak eta kata kontrolatuak ez ziren egin nahi izan, guztiz harrigarria eta azientifikoa dena, nahiz eta Perring-ek berak ere kata horiek egitea eskatu.

Aldundiaren Batzordean aurkeztu ziren txosten batzuk ostraken egiazotasunaren aldekoak ziren, hau da, ez zen adostasun osorik egon ostrakak faltsuak zirela esateko. Momentu horretan Aldundiak gai sakondu beharrean eta materiala publiko egin

beharrean iritzi gehiago eta eztabaida sakonago ahalbideratzeko, gaia itxi, aurreko arkeologoak kanporatu eta eztabaida zientifikoa amaitutzat eman zuen.

Kuriositate gisa, Aldundiaren Batzordeko kide batzuek (faltsutasunaren alde zeudenak) ostrakak faltsuak zirela hedabideen aurrean esan zutenean (2008ko azaroaren 19n) bi gai aipatu zituzten nagusiki: ostrakak faltsuak zirela kola modernoaren aztarnak zituztelako eta "Descartes" hitza agertzen zelako. Bi aipamen hauek Batzorde honen maila zientifikoa ezin hobeto erakutsi zuten, apurtuta agertzen diren zeramika zatiak kolaz pegatzen direla ez jakitea eta behean ikusten den testuan "Descartes" agertzen dela inolako zalantzarik gabe esatea (ez zuten momentu horretan publiko egin argazki hau noski) komunitate zientifikoa eta herritarrak ezjakintzat hartzea izan zelako:



2008ko azaroaren 19ko agerpen honen ostean, eztabaida publikoa izugarri piztu zen, emandako arrazoiak (kola eta Descartesena besteak beste) ez zirelako nahikotzat ematen eta bi gauza eskatzen hasi ziren: txostenak eta idazkunen argazkiak publiko egitea.

Ia bi hilabete pasatu ondoren, 2009ko urtarrilaren 17an Aldundiaren webgunean publiko jarri ziren txosten guztiak eta idazkunen argazki gehienak, horien barruan aurreko orrialdean jarritakoa. Egun horretan Batzordearen txosten guztiak, bat izan ezik, azaroaren 19ko data baina beranduagoko data zutela ikusi genuen. Hau da, Eliseo Gil eta bere Lurmen enpresa kanporatua izateko emandako argudioak, kanporatutako egunaren osteko txostenetan zeuden!

Txosten eta argazkien argitaratzeari esker eztabaida zientifikoa hasi ahal izan zen. Ez egoera normalean, egiazkotasunaren alde egingo luke edonork bere izen eta kasu batzuetan lanpostua arriskuan jar zezakeelako baina, aukera bazegoen eztabaidatzeko, lehen ez zegoena. Urte betean 16 txosten metatu dira, ostrakak egiazkoak izan daitezkeela diotena, eta inplikaturako arlo guztietatik eginda daude: hizkuntzalaritza,

arkeologia, epigrafia, historia, egiptologia eta geologia. Batzuk hasieratik daude, Aldundiko Batzordeko kide batzuek egindakoak. Txosten horietan Batzordeak faltsutzat hartzeko argudioei arrazonamendu eta beste argudioekin erantzuten zaie, hau da, edozein eztabaida zientifikotan egiten dena. Txosten horien zerrenda amaierako eranskinean daude.

Txosten hauek egitean, egileek haien profesionaltasun eta karrera arriskutan jarri dute baina, beste adituek ez bezala, ezin izan dute ezjakinarena egin kulturaren eta euskararen kontrako eraso bortitz honen aurrean. 16 txosten hauek 1.400 orrialde osatzen dute eta doan egin dituzte (Aldundiko Batzordearen txostenak 400 orrialde eta diru asko kostatu dute). Txosten guztiak garrantzitsuak badira ere, Martin Elexpuru eta Hector Iglesias hizkuntzalarienak nabarmendu behar dira. Puntuz puntu Lakarra eta Gorrotxategik esandako ia guztia oker egon daitekeela esaten dute, hainbat adibide, informazio eta iturriren bidez: Miscart (ez Descartes), Denos (ez Denok)... Hectorrek dioen bezala, mundu osoan izen keltak ezagutzen dituzten adituak 10 baino ez badira, nola da posible faltsutzaileek horrelako izenak daudela jakitea eta Batzordeko adituek ez?



Beste txosten garrantzitsu bi Koenraad Van den Driessche-na eta Joaquim Baxarias-ena dira. Lehenengoak argi eta garbi azaldu du faltsutzat emandako ostraka asko datatu daitezkeela, besteak beste kaltzita arrastoak eta jalkinak (sedimenduak) dituztelako. Adreiluan egindako ostrakak ere datatu daitezke, egosketa noiz egin zen


jakiteko aukerak daudelako, edo ke aztarna dituzten ostrakak. Hezurretan egindako batzuk ere berriak ezin direla esan frogatzeko moduak ere badaude. Datazio hauek merkeak dira eta modu zientifiko batez idazkunak zaharrak edo egin berriak direla egiaztatuko lukete. Bigarren aditua, Joaquim Baxarias paleopatologoak hezurretan egindako idazkunak aztertu ondoren, egin berriak izatea ia ezinezkoa dela frogatu du.

Denbora luze honetan, faltsutasunaren aldeko Aldundiko Batzordekoek kontrargudio hauei ez diete erantzunik eman, eta hori ez da zientifikoki egokia. Izan ere, edozein eztabaida zientifikoa argudioei beste argudioekin erantzun behar zaie. Gainera, uko egin diote publikoki eztabaida hori egiteari. Bartzelonako Euskal Etxeak antolatu zuen hitzaldian, faltsutasunaren aldeko Gorrotxategik baldintza hori jarri zuen: Elexpuru ez gonbidatzea berarekin eztabaidatzera, nahiz eta onartu zuen Koen geologoa egotea. Ez zuen zentzu handirik erabat desberdinak diren arloak mahai berean eztabaidatzea, baina halaxe egin zen. Donostiako Irakasle Eskolak antolatu zuen hitzaldian gauza bera gertatu zen eta bi hitzaldi egin behar izan ziren Lakarrak eta Gorrotxategik Elexpuru eta Iglesiarekin aurrez aurre eztabaidatzeari uko egin ziotelako.

Epailleek, orain arte, 16 txosten horiek ondotxo irakurrita, argi dute ez zeukala zentzurik Eliseo Gilek iruzurra egitea, finantzazioa urte askotarako ziurtatuta izanik. Ez dute gainera

Ulertezina litzateke Guardia Zibilak bakarrik analitikak egitea eta ez arkeometriari adituak diren laborategiek. Berrero akats larria izango litzateke, hasieratik egin behar izan zena orain ere ez egitea: mundu mailan gehien dakiten laborategietako langileei laguntza eskatzea.

Gure batzordeko kideak Lorena Lopez de Lacallerekin elkarrizketatu ziren bigarren bileran eta datazioak egin zitezkeela jakinda (Koenraad Van den Driessche geologoari esker), hori eskatzean hauxe erantzun zigun Lorenak: "Aldundiak ez du diru gehiagorik gastatuko". Zur eta lur atera ginen handik. Hasieran ezin zirela egin esan, eta gero ez dutela dirurik gastatuko horietan. Nola liteke hain arduragabe izatea!



Plan Zuzendarian hondeamakina 50 cm gehienez arituko zela esan bazuten, hemen argi ikusten da gezurra dela. Harlauzetaraino sakondu zuen!

Baina epaileak datazioak egitea agindu duenean, denbora ez galtzarren, Aldundia probak suntsitzen hasi da, modu ikaragarri batez. Hondeamakina bat erabili dute horretarako, metro eta erdiko sakoneraino sartuz eta dena isurtegitara eramanez, pasa den uztailan. Plan Zuzendarian 50 cm baino gehiago ez zutela hondeamakinarekin sakonduko esan zuten, baina gezurra! Leku batzuetan etxeetako zoruraino sartu dute pala mekanikoa. Horren ondorioz, harlauza asko agerian utzi eta beste batzuk apurtu dituzte. Zorua gainean egon zitezkeen tresna, zeramika zatiak, ostrakak agian... dena suntsitu dute. Orain zer egin behar dute, harlauzen azpian gauzak bilatu?

Lan hau ez dute edonon egin. Hondeamakina sartu duten eremu honetan, euskarazko bi ostraka eta abezedario bat aurkitu ziren. Gainera, airetik egindako argazki batean (Eliseoren txosten batean ageri dena) argi ikusten zen etxeetako egituren arrastoa. Izan ere, airetik argazki horri esker egitura horiek lurretik oso hurbil zeudela ikus zitezkeen. Beraz, kontu handiz arakatu beharreko eremua zen, hobe 30 cm-tik behera eskuz eta ez 50 cm-tik.



Hondeamakinak apurtutako harlauzak, bertaraino sakondu zuelako.

Hondeamakinak agerian utzitako harlauzen gainean zegoen guztiguztia isurtegiara bota zuten.

Betiko galdu dira gainean egon litekeena: piezak, ostrakak, tresnak... euren estratoak, kronologia, DENA

Are gehiago, Eliseoren taldekoek finka hori desjabetzea eskatu zuten, hortxe, nekazaritza lanak egitean sarritan agertzen zirelako hondakin arkeologikoak, lurra lantzean!!! Lehen egin ziren bi katen inguruan hasia zen logikoena, antzeko ostrakarik agertzen zen ala ez ikusteko. Ganora duen arkeologo batek horixe egingo luke.

Ez zen kasualitatea ere hau uda garaian egin izana, hondamendi honen kontra egiteko jende gutxiago dagoenean. Ondo kalkulatu. Hauxe, norbaitek esan duen moduan, "Lehenengo proba da, ea jendeak zer esaten duen. Kontra jartzen ez bagara, gauza bera egingo dute eremu guztian. Haien arabera Arabako Iruña harri multzo bat baino ez da izan behar".

Epallearen zain egon gabe, ezin onartuzkoa da 1.700 urtetako historia aste betean suntsitu izana.



Eliseo Gilen txosten batean sektore honetako airetiko argazki hau dago.

Etxeetako egiturak lurretik oso hurbil zeudela argi ikusten da eta kontu handiz ibili behar zen hemen, ez egin duten moduan, ezta 50 zentrimetroraino ere ez.

3. Ostrakak egiazkoak izan daitezkeela adierazten duten 16 txostenak (Iturria: Sos Iruña Veleiako webgunea: <http://www.sos-irunaveleia.org/informes>)

1.1- [Acerca de la metodología arqueológica empleada en las intervenciones desarrolladas en Iruña-Veleia y otras circunstancias \(en respuesta a los informes emitidos por el Área de Arqueología del EHU-UPV para la Diputación Foral de Álava\).](#)

Egilea: Eliseo Gil Zubillaga, arkeologoa eta historialaria.

Gaia: Batzordeak egindako txostenei egindako erantzuna

1.2- [Informe arqueológico de mayo 2007 presentado a la Comisión el día 16 de enero 2008](#)

Egileak: Idoia Filloy Nieva eta Eliseo Gil Zubillaga, biak arkeologoak eta historialariak

Gaia: Indusketei buruzko txostena, Miren Azkaratek egindako eskaeragatik

1.3- [Informe arqueológico de Iruña-Veleia, Sector 5, recinto 59 presentado el día 26/06/08](#)

Egileak: Idoia Filloy Nieva eta Eliseo Gil Zubillaga, biak arkeologoak eta historialariak.

Gaia: 59 eremuko 5. sektoreko dokumentazio arkeologikoa

2.- [Dictamen científico sobre el método arqueológico \(Iruña-Veleia.\)](#)

Egileak: Carmen Fernandez Ochoa Dok., Arkeologian katedraduna, Angel Morillo Cerdán Dok., Arkeologian irakaslea

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa

3.- [Dictamen científico sobre el método arqueológico utilizado en las excavaciones de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Emilio Illarregi, arkeologoa eta Arkeologian doktorea

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa

4.- [Iruña-Veleia. Una evaluación arqueológica.](#)

Egilea: Edward Cecil Harris Dok., Bermuda Maritime Museum-eko zuzendaria

Gaia: Iruña-Veleian erabilitako metodo arkeologikoren balorazioa

5.- [Iruña-Veleia. Sobre algunos grafitos singulares aparecidos en las excavaciones arqueológicas de la ciudad romana. Un parecer.](#)

Egilea: Antonio Rodriguez Colmenero Dok., arkeologo eta epigrafista Santiago Unibertsitateko katedraduna

Gaia: Grafitoen epigrafia eta ikonografiari buruzko txostena.

6.- [Informe sobre los ostraca con jeroglíficos de tipo egipcio y nombres egipcios escritos en latín sobre hueso y ostraca de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Ulrike Fritz Dok., Alemaniako Tübingengo Unibertsitateko hizkuntzalaria eta egiptologoa

Gaia: : Egipziar motako hieroglifikoak eta Egiptoko historia eta erlijioaren pertsonaiak aztertzen dituen txostena

7.- [Informe sobre los motivos iconográficos presentes en los denominados grafitos de carácter excepcional del conjunto arqueológico de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria

Gaia: Txosten ikonografikoa, Giuliano Volpe eta Julio Nuñezen txostenari erantzuteko



8.- [Informe sobre los textos en latín de los grafitos de carácter excepcional de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Idoia Filloy Nieva, arkeologoa eta historialaria

Gaia: Zeinu, onomastika, paleografia eta hizkuntzari buruzko txostena, Pilar Ciprés/Juan Santos, Isabel Velásquez eta Joaquín Gorrochateguiren txostenei erantzuteko

9.- [El problema de la falsedad/autenticidad de los ostracones de Iruña-Veleia: evidencias físicas.](#)

Egilea: Koenraad Van den Driessche Dok., geologoa

Gaia: Grafitoak dituzten piezen ebidentzia fisikoak aztertzen dituen txostena, datazioak egin daitezkeela frogatuz

10.- [Análisis visual de 15 piezas arqueológicas a través de imágenes fotográficas procedentes del yacimiento de "Iruña-Veleia" de Trespuentes \(Alava\).](#)

Egilea: Mikel Albisu Lasa, geologoa

Gaia: Zeramizkako 15 ostraka aztertzen dituen txostena

11.- [Informe preliminar de los restos óseos con inscripciones antrópicas procedentes de las excavaciones de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Joaquín Baxarías Tibau Dok., mediku paleopatologoa, *Associació catalano-balear de paleopatología-ko* eta *Fundació Académica de Ciències Mèdiques i de la Salut de Catalunya y Balears-eko* kidea

Gaia: Grafitoak dituzten 40 hezur piezen azterketa

12.- [Les inscriptions de Veleia-Iruña.](#)

Egilea: Hector Iglesias Dok., filologoa, Baionako IKERreko ikerlea

Gaia: Euskarazko eta latinezko testuei eta grafitoen ikonografiari buruzko txostena

13.- [Comentarios y objeciones a los informes de los profesores Gorrochategui y Lakarra sobre los grafitos en euskera de Iruña-Veleia.](#)

Egilea: Juan Martin Elexpuru Dok., filologoa eta idazlea.

Gaia: Grafitoetako euskarazko testuei buruzko txostena

14.- [Observaciones sobre los recientes hallazgos epigráficos paleovascos de Iruña-Veleia](#)

Egilea: Luis Silgo Gauche Dok., Arkeologian doktorea eta euskal-iberiar Epigrafian aditua

Gaia: Grafitoetako paleoeuskerari buruzko txostena. Jean-Baptiste Orpustan Dok.ak emandako iruzkinak barne daude.

15.- [Informe sobre los peritajes grafológicos de Iruña-Veleia](#)

Egilea: Roslyn M. Frank Dok.

Gaia: Arabako Foru Aldundiko peritaje grafologikoei buruzko txostena

16.- [Observaciones sobre la "Valoración" del Área de Arqueología de la Universidad del País Vasco sobre los hallazgos excepcionales del Yacimiento de Iruña-Veleia](#)

Egilea: Luís Silgo Gauche Dok.

Gaia: Euskal Herriko Unibertsitateko Arkeologia Arloko txostena



4. Arabako Iruña Argitzeko Batzordeak gai honi buruz egindako lan nagusiak

Gure elkartearen baitan dagoen batzorde honek ahalegin handiak egin ditu hasieratik gai hau bide zientifikotik bideratzeko. Hauek dira egindako ekintza nagusiak:

- | | |
|------|--|
| 2007 | <ul style="list-style-type: none">➤ Arabako Foru Aldundiari bidalitako agiria, batzorde zientifiko bat sortzeko eta gaia argitzeko (ordurako Correo egunkaria faltsutasunaren aldeko kanpaina hasia zen eta). Abenduaren 3an. |
| 2008 | <ul style="list-style-type: none">➤ Euskararen Jatorriaren 3. Biltzarraren hitzaldia: <i>Iruña Okako idazkunen balioa</i>. Maiatzaren 17an.➤ Lorena Lopez de Lacallerekin elkarrizketa. Azaroaren 20an➤ Durangoko Azokan <i>Iruña Oka argitu dezagun</i> adierazpena, gai hau argitzeko mugimenduaren abiapuntutzat har daitekeena. Abenduaren 7an Artikulua egunkarietan. |
| 2009 | <ul style="list-style-type: none">➤ Arabako Iruña Argitzeko Batzordearen sorrera. Urtarrilaren 17an.➤ Hitzaldia Koldo Mitxelenan Elexpuru, Koen, Zabala eta Alañarekin. Aretoa beteta, 100 lagun. Otsailean.➤ Hitzaldia Abadiñon, maiatzaren lehenengo asteburuan.➤ Izenpe bilketa. <i>Oka argitu dezagun</i> adierazpenarekin webgunea sortzen du gure batzordeak eta izenpeak jasotzen hasi ziren. 165 izenpe jaso ziren eta Sos Iruña Veleiak bere adierazpen eta izenpe bilketa uda ostean hasi zuenean, hemengoak hara bidaltzea erabaki zen, izenpeak batzeko.➤ Euskararen Jatorriaren 4. Biltzarraren gai nagusia, hiru hizlarirekin: Eliseo Gil, Martin Elexpuru eta Koen Van den Driessche. Ondoren mahai ingurua. Maiatzaren 23an Iruña Okan.➤ Lorena Lopez de la Callerekin 2. bilera. Datazioak egiteko aukeraz KoenEK idatzitakoa berari aipatu ondoren zera erantzun zigun: “ez dugu dirurik gastatutako datazioetan”.➤ ETSko arduradunekin bilera. Saikerak ere Eusko Trenbideak eta EHUko Iñaki Goirizelaiarekin batzartzeko baina uko egin diote gurekin batzartzeari.➤ Iruña Okako udalarekiko harremanak gai honetan zerbait egiteko. Udalak, urriaren 27an mozio bat onartu du, aho batez, datazioak eskatuz.➤ Berripapera. Urte honetan otsailaren 17an eta matxoaren 7an bi berripaper bidali zitzairen Arabako Batzar Nagusietako alderdi guztiei.➤ Prentsa artikulua <i>Euskararen Jatorriaren 4. Biltzarra: Iruña Okako ostrakak egiazkoak ala gezurrezkoak?</i>➤ Hitzaldiak Zizurkilen eta Galdakaon |
-



- Euskararen Jatorriaren 5. Biltzarrean hitzaldia, Martin Elexpururen ahotik
 - Prentsa artikulua: *Arabako Iruñan ondarea suntsitzen ari dira: Lorena Lopez de Lacalle, Julio Nuñez, Xabier Agirre eta Iñaki Goirizelaia dimititu!*, 3 hedabidetan argitaratuta. Abuztuan.
 - Prentsa artikulua: *Arabako Iruña eta XIX. mendeko medikuntza 2. urteurrenean*, azaroaren 19an (6 hedabidetan argitaratuta).
- 2010
- Berripaperak: martxoaren 8an, apirialaren 16an, abuztuaren 4an, irailaren 18an eta 27 eta azaroaren 19an eta 27an. Arabako Batzar Nagusietako eta Eusko Legebiltzarreko alderdiei, eta gai honetan ardura duten erakundeei (EHU, Eusko Tren, ETS, Iruña Okako Udala...)
 - Iruña Okako Udalean suntsipenari buruzko informazioa udalbatzari, Idoia Filloyren proiektioarekin
 - Laborategiak: harremana 3 laborategiekin datazioei buruzko informazioa eskatuz
-
- Sos Iruña Veleiari eta Lurmeni elkarlanerako proposamena (biltzar monografikoa, datazioen beharra azpimarratzeko ekitaldia...)
 - Malentxo Arruabarrenarekin batzarra, otsailaren 16an
- 2011
- Euskaltzaindiari eskaera martxoaren 9an, gai hau bide zientifikoaren eta datazioen bidez bideratzeko.
 - Prentsa artikulua: *Malentxo konpondu Iruña Veleia datazioekin* (4 hedabideetan argitaratuta). Martxoan.
 - Berripapera: Martxoaren 11an
-

5. Martin Elexpuru, txosten egileetako bat eta Sos Iruña Veleia Plataformako kidea

“Iruña Veleia suntsitzen” bideoaren emanaldia eta azken urteko gertaera nagusiak. Horrez gain Sos Iruña Veleia plataformak egindako ekimen nagusiak.

